

**/2018 FORU DEKRETUA, XXXX AREN XX KOA,
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO ARTISAUTZA ETA
ARTISAUTZAKO ERAKUNDEEN ERREGISTROA
ARAUTZEN DITUENA**

ZIOEN ADIERAZPENA

2014ko apirilaren 8ko 46/2014 Foru Dekretuaren bidez, eguneratu egin zen Bizkaiko Lurralde Historikoko Artisautzako Erakundearen Erregistroari buruzko arauketa; 1988ko martxoaren 30eko 37/1988 Foru Dekretuaren bidez sortu zen erregistro hori. Ordutik hona metatutako esperientziak gomendatzen du eguneraketa berri bat egitea eta egunean jartzea Erregistroaren funtzionamendua, Bizkaiko artisautzaren errealitateak hurbilago egon dadin. Aldi berean, ikusi da beharrezkoa dela araudia gaur egun indarrean dagoen legeriara egokitzea, hain zuzen, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legea, administrazio-prozedurari dagozkion aipamen generikoei eta jardun-lerro espezifikoiei dagokienez.

Erregistroaren funtzionamendua eta antolamendua eraginkorragoak izan daitezten, aurreko araudian Erregistroan zeuden hiru atalak bitara murriztu dira: bat, pertsonen buruzkoa (fisikoak edo juridikoak), eta, bestea, elkartei buruzkoa. Horretarako, artisautzako enpresatzat jo da artisautza-jarduera bat egiteko helburu duen edozein antolamendu mota, bere lan-egituran pertsona bakarra badu ere.

Era berean, foru-dekretu hau indarrean dagoen legeriara egokitzearren, beharrezkotzat jo da produktu kosmetikoak fabrikatzen dituzten enpresek Sendagai eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziaren baimena izatea Erregistroan sartzeko; produktu kosmetikoen araudia jasotzen duen 1997ko urriaren 17ko 1597/1997 Errege Dekretuan arautzen da agentzia, eta 2005eko otsailaren 25eko 209/2005 Errege Dekretuaren bidez aldatzen da errege-dekretu hori.

Azkenik, berrikusi egin da Erregistroko inskripzioak ezerezteko araubidea, ezerezteko inskripzioa egin duten enpresa edo erakundeek uko egiteagatik gertatzen ez denean. Horretarako oinarri izan behar da erregistratzea erabat borondatezkoa dela eta Erregistroaren eskakizunak jarduera ekonomikoaren gaineko zergaren erroldari eta gizarte-segurantzian dagoen araubideari lotuta daudela; izan ere, baldintza horiek bete gabe ezin da artisautzan jardun, eta hori da, hain zuzen, Erregistroaren arrazoia.

Foru Dekretu hau Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarri diren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren izaera orokorreko xedapenak prestatzeko prozedura arautzen duen 2017ko urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 3. artikuluan jaso

**DECRETO FORAL /2018, DE XX DE XXX, SOBRE LA
REGULACIÓN DE LA ARTESANÍA Y DEL
REGISTRO DE ENTIDADES ARTESANAS DEL TERRITORIO
HISTÓRICO DE BIZKAIA**

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Mediante Decreto Foral 46/2014, de 8 de abril, se actualizó la regulación del Registro de Entidades Artesanas del Territorio Histórico de Bizkaia, que había sido creado por Decreto Foral 37/1988, de 30 de marzo. La experiencia acumulada durante este largo período de tiempo aconseja una nueva actualización y puesta al día de su funcionamiento, acercándolo a la realidad de la actividad artesana en Bizkaia. Al mismo tiempo, se ha presentado una necesidad de adaptar esta normativa a la legislación vigente, en concreto a la Ley 39/2015, 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, tanto en sus referencias genéricas al procedimiento administrativo, como en las líneas de actuación específicas.

En orden a dar más eficacia al funcionamiento y organización del Registro, se han reducido las secciones que lo forman a dos, en lugar de las tres de la regulación anterior: una para personas, ya sean físicas o jurídicas; y otra para asociaciones. Para ello se ha considerado empresa artesana cualquier organización dirigida a realizar una actividad artesanal, aunque en su estructura laboral cuente con una sola persona.

También con el fin de adaptarlo a la legislación vigente se ha estimado necesario que, para el caso de empresas dedicadas a la fabricación de productos cosméticos, para proceder a su inscripción es necesario contar con la autorización de la Agencia Española de Medicamentos y Productos Sanitarios, regulada en el Real Decreto 1597/1997, de 17 de octubre, que recoge la regulación de los productos cosméticos, modificado por el Real Decreto 209/2005, de 25 de febrero.

Por último, se ha procedido a revisar el régimen de cancelación de las inscripciones, que no sean debidas a la propia renuncia de las empresas o asociaciones inscritas. Para ello, debe partirse de la base de que se trata de un Registro de carácter absolutamente voluntario, cuyas exigencias están vinculadas al censo del Impuesto de Actividades Económicas y del régimen correspondiente de la Seguridad Social, ya que sin estos requisitos no puede ejercerse la actividad artesanal, que es la razón de ser del Registro.

El presente Decreto Foral responde a los principios de buena regulación previstos en la Ley 39/2015 de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y recogidos en el artículo 3 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 2/2017 de 17 de enero por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de



diren erregulazio onaren printzipioak betez jaulki da.

Aurrekoa dela bide, eta Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39. artikulua araberako, foru-diputatuei dagokien foru-sailen antolaketa, zuzendaritza, kudeaketa, ikuskapena eta ordezkaritza; horrenbestez, honako hau

XEDATZEN DUT

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. - *Helburua*

1.- Foru-dekretu honen bidez, definitu eta mugatzen da zer den artisautzako produktuak egiteko jarduera; helburu bakarra da artisautza-jarduera hori sustatu eta piztea, Bizkaiko Foru Aldundiak kultura-ondasuntzat hartzen baitu.

2.- Bestalde, aurrekoaren osagarri gisa, foru dekretu honen helburu da, era berean, Bizkaiko Lurralde Historiko Artisautzako Erakundearen Erregistroaren funtzionamenduari araubidea arautzea, erregistroan inskribatzean baitakar artisautzako erakundearen edo enpresaren izaera aitortzea.

2. artikulua. - *Organo eskuduna*

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saila izango da araudi hau aplikatzeko organo eskuduna, Kanpo Sustapenerako eta Turismorako Zuzendaritza Nagusiaren bitartez.

II. KAPITULUA ARTISAUTZA

3. artikulua. - *Artisautzaren definizioa eta Erregistroaren helburua.*

Foru-dekretu honen ondorioetarako, hau izango da artisautza: ondasun manufakturuak sortu, ekoitzi, eraldatu eta konpondu edo zaharberritzea helburu duen enpresa-jarduera. Jarduera hori egiteko teknika tradizionalak zein berritzaileak ezagutu eta menperatu behar dira, dela lehengaiak hautatu eta haien tratamendua egiteko, dela lehengaioi zentzu estetiko emateko, eta prozesu horren guztiaren emaitza produktu individualizatu bat izan behar da, ekoizpen industrial mekanizatuaren edo serie handiko ekoizpenaren bidez lortu ezin dena.

4. artikulua. - *Artisautza-jarduera.*

Dekretu honen ondoretarako eta, oro har, Bizkaiko Foru Aldundiarekin egiten diren harremanetarako, artisautza-jardueratzat bakarrik hartuko dira Bizkaiko Foru Aldundiaren 2014ko apirilaren 10eko 3564/2014 Foru Aginduan onartu

carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia.

Por todo ello, y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 39 de la Norma Foral 3/1987 de 13 de febrero, sobre elección, organización, régimen y funcionamiento de las instituciones forales del Territorio Histórico de Bizkaia, compete a los Diputados Forales la organización, dirección, gestión, inspección y representación del Departamento Foral en virtud del cual

DISPONGO

CAPÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1. - *Objeto*

1.- Es objeto del presente Decreto la definición y delimitación de la actividad desarrollada para elaborar productos artesanos, a los solos efectos de las acciones de fomento y de incentivo de esta actividad artesana, concebida como un bien cultural, por parte de la Diputación Foral de Bizkaia.

2.- Por otro lado, y como complemento de lo anterior, también es objeto del presente Decreto Foral la regulación del régimen de funcionamiento del Registro de Entidades Artesanas del Territorio Histórico de Bizkaia, cuya inscripción implica el reconocimiento de la condición de entidad o empresa artesana.

Artículo 2. - *Órgano competente*

Será el órgano competente para la aplicación de la presente normativa el Departamento de Desarrollo Económico y Territorial, a través de la Dirección General de Promoción Exterior y Turismo.

CAPÍTULO II

DE LA ARTESANÍA

Artículo 3. - *Definición de artesanía y finalidad del Registro.*

Se considera artesanía, a efectos de este Decreto Foral, la actividad cultural que tiene como objeto la creación, producción, transformación y reparación o restauración de bienes manufacturados. Esta actividad deberá estar basada en el dominio y conocimiento de técnicas tradicionales o innovadoras en la selección y tratamiento de las materias primas y/o en el sentido estético de su combinación y deberá tener como resultado final un producto individualizado, no susceptible de una producción industrial totalmente mecanizada o en grandes series.

Artículo 4. - *Actividad artesana.*

A los efectos de este Decreto y, en general, de las relaciones con la Diputación Foral de Bizkaia únicamente se considerará actividades artesanas las recogidas en alguno de los oficios relacionados y definidos en el repertorio de oficios artesanos



zen artisau-lanbideen bilduman jaso eta definitutakoak, bai eta haietan egiten diren aldaketak ere.

5. artikulua. *Artisautzako enpresak eta elkarteak*

1.- Artisautzako enpresa edo erakundeak dira Bizkaiko artisau-lanbideen bilduman jasotako jarduera bat edo batzuk egiten dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak.

2.- Artisautzako elkartetzat jotzen dira bereziki Bizkaian artisautza sustatu eta defendatzeko artisauek batzea bilatzen duten pertsona juridikoak, pertsona horiek uste baitute artisautza ondare kolektibo eta kulturala dela, eta interes orokorrekoak diren ondasun immaterial gisa gorde eta sustatu behar diren lanbide zein arte tradizional batzuk biltzen dituela.

III. KAPITULUA

ARTISAUTZAKO ERREGISTROA

6. artikulua. - *Erregistroaren helburua.*

Erregistroaren helburua da artisautzako enpresa edo erakundeen eta artisauen elkarteen inskripzioa, Foru Aldundiak bere eskumenak erabilita halakotzat jo ditzan.

7. artikulua. - *Erregistroaren izaera*

1.- Bizkaiko Lurralde Historikoko Artisautzako Erakundeen Erregistroak administrazio-izaera du eta doakoa eta publikoa da, foru dekretu honetan ezarritako eran.

2.- Erregistro honetan sartzeak ez ditu interesdunak salbuesten indarreko legeriaren arabera beharrezkoak diren gainerako baimen edo eskuespenak izan beharretik eta inskripzioak egitetik.

3.- Erakunde interesdunek emandako datuak bakar-bakarrik erabiliko dira Artisautzako Erakundeen Erregistroan ezarritako helburuetarako; arlo horretan zorrotz beteko dira 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa (Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoa) eta, bereziki, lege hori garatzeko erregelamendua onetsi zuen 2007ko abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 2.2 eta 2.3 artikulua.

4.- Bizkaiko Lurralde Historikoko Artisautzako Erakundeen Erregistroko datu hauek publikoak izango dira:

- Merkataritzako marka.
- Izen-abizenak edo artisautzako erakundearen izenak.
- Egiten den lanbidea edo jarduera.
- Jardueraren deskripzioa.
- Enpresaren eta, hala denean, lantegiaren sozietate-helbidea.
- Telefono-zenbakia.

aprobado por la Diputación Foral de Bizkaia en la Orden Foral 3564/2014, de 10 de abril, así como en las posibles modificaciones que puedan producirse.

Artículo 5. *Empresas y asociaciones artesanas*

1.- Se consideran empresas o entidades artesanas aquellas personas físicas o jurídicas que desarrollen una o varias de las actividades artesanales recogidas en el repertorio de actividades artesanas de Bizkaia.

2.- Se consideran asociaciones artesanas las personas jurídicas que persigan la unión de las personas artesanas con el fin de fomentar y defender la artesanía, especialmente de Bizkaia, concebida como un patrimonio colectivo y cultural, que comprende oficios y artes tradicionales, los cuales deben preservarse e impulsarse como bienes inmateriales de interés general.

CAPÍTULO III

DEL REGISTRO DE ARTESANÍA

Artículo 6. - *Objeto del Registro.*

El Registro tiene por objeto la inscripción voluntaria de las empresas o entidades artesanas y de las asociaciones de personas artesanas para su reconocimiento por la Administración Foral en el ejercicio de sus competencias en esta materia.

Artículo 7. - *Naturaleza del registro*

1.- El Registro de Entidades Artesanas del Territorio Histórico de Bizkaia tiene naturaleza administrativa y carácter gratuito y público en los términos establecidos en el presente Decreto Foral.

2.- La inscripción en el Registro no exime a las personas interesadas de los demás permisos, autorizaciones e inscripciones a que estén obligados de acuerdo con la legislación vigente.

3.- Los datos aportados por la entidad interesada se utilizarán, con carácter único y exclusivo para los fines establecidos en el Registro de Entidades Artesanas, con estricta sujeción a la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal y, en particular, los artículos 2.2 y 2.3 de su Reglamento de desarrollo, Real Decreto 1720/2007, de 21 de diciembre.

4.- El Registro de Entidades Artesanas del Territorio Histórico de Bizkaia será público respecto a los siguientes datos:

- Marca comercial.
- Nombre y apellidos o denominación de la entidad artesana.
- Oficio o actividad desarrollada.
- Descripción de la actividad.
- Domicilio social de la empresa y, en su caso, del taller.
- Número de teléfono.



- Erakundeen web ataria eta helbide elektronikoa.
- Bizkaiko Lurralde Historikoko Artisanutzako Erakundeen Erregistroko erregistro-zenbakia.

8. artikulua.- Erregistroaren administrazio-atxikipena.

- 1.- Bizkaiko Lurralde Historikoan Artisanutzako Erakundeen Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Foru Sailari atxikita dago.
- 2.- Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Foru Sailari dagokio, Kanpo Sustapenerako eta Turismorako Zuzendaritza Nagusiaren bidez, erregistroa kudeatzea, eskatzaileek aurkeztutako idazkiak eta dokumentazioa aztertu eta onartzea, idazki-dokumentuok konpultatu eta autentifikatzea, erregistro-inskripzioak egitea eta erregistroak ondo funtzionatzen duela bermatzeko gainerako jarduketak egitea.

9. artikulua.- Erregistroaren antolamendua.

Artisanutzako Erregistroak bi atal izango ditu:

- Lehen atala: Artisanutzako enpresen errolda.
- Bigarren atala: Artisanutzako elkarten errolda.

10. artikulua.- Lehen atala: artisanutzako erakunde edo enpresak.

1.- Erregistroan inskribatu ahal izateko, artisanutzako erakunde edo enpresek baldintza hauek bete behar dituzte, inskribatzeko eskabidea egiten dutenean zein inskribatuta dauden bitartean:

- Sozietatearen helbidea eta helbide fiskala Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea.
- Ekoizpen-zentroa edo lantegia Bizkaiko Lurralde Historikoan kokaturik egotea.
- Artisanutza-jarduera bat edo gehiago egitea; halakotzat jotzen dira dekretu honen 3. artikuluan eta Bizkaiko artisaulanbideen bilduman jasotakoak.
- Artisanutza-jarduera ez egitea noizean behin, modu osagarrian edo aldi baterako.
- Jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta emanda egotea aipatutako artisanutza-jardueri dagokien epigraferen batean.
- Gizarte Segurantzaren dagokion araubidean alta emanda egotea.
- Sexu-diskriminazioa dela-eta inoiz zehapena jaso gabeak izatea.
- Gehienez ere senide ez diren hamar pertsona enplegatuta edukitzea modu iraunkorrean, aprendizak aparte utzita. Artisanua baldintza hau betetzetik salbuetsita egon daiteke, horretarako eskaera egiten badu, kontuan hartuta egien dituen artisanutza-jardueren izaera eta langileen beharrazana.

- Página web de la entidad y dirección de correo electrónico.

- Número de registro en el Registro de Entidades Artesanas del Territorio Histórico de Bizkaia.

Artículo 8.- Adscripción administrativa del Registro.

- 1.- El Registro de Entidades Artesanas del Territorio Histórico de Bizkaia se adscribe al Departamento Foral de Desarrollo Económico y Territorial.
- 2.- Corresponderá al Departamento Foral de Desarrollo Económico y Territorial; a través de la Dirección General de Promoción Exterior y Turismo la llevanza del Registro, el examen y admisión de escritos y documentaciones presentadas por los solicitantes, la compulsión y autenticación de los mismos, las inscripciones registrales y demás actuaciones encaminadas a asegurar el correcto funcionamiento del mismo.

Artículo 9.- Organización del Registro.

El Registro de Entidades Artesanas se organiza en dos secciones:

- Sección Primera: Censo de empresas artesanas.
- Sección Segunda: Censo de Asociaciones

Artículo 10.- Sección primera: entidades o empresas artesanas.

1.- Las entidades o empresas artesanas para poder inscribirse en el Registro, deberán cumplir los siguientes requisitos, tanto en el momento de la solicitud de inscripción, como durante la permanencia en el mismo:

- Estar domiciliadas social y fiscalmente en el Territorio Histórico de Bizkaia.
- Contar con el centro de producción o taller dentro del Territorio Histórico de Bizkaia.
- Desempeñar una o varias actividades artesanas, entendiéndose como tales las descritas en el artículo 3 del presente decreto e incluidas en el Repertorio de Oficios Artesanos de Bizkaia.
- No realizar la actividad artesanal de una forma ocasional, accesoria o temporal.
- Encontrarse en situación de alta en el Impuesto de Actividades Económicas en alguno de los epígrafes correspondientes a las actividades artesanas citadas.
- Encontrarse en situación de alta en el régimen correspondiente de la Seguridad Social.
- No haber sido sancionadas por incurrir en discriminación por razón de sexo.
- Contar con un número de personas no familiares empleadas con carácter permanente que no exceda de diez, a excepción del personal aprendiz. Este requisito podrá eximirse a petición de la persona artesana, atendiendo la naturaleza de las actividades artesanales desarrolladas y su necesidad de personal.



- Produktu kosmetikoak fabrikatzen dituzten enpresek Sendagai eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziaren baimena izan behar dute; produktu kosmetikoen araudia jasotzen duen 1997ko urriaren 17ko 1597/1997 Errege Dekretuan arautzen da agentzia, eta 2005eko otsailaren 25eko 209/2005 Errege Dekretuaren bidez aldatzen da errege-dekretu hori.

2.- Kanpo Sustapenerako eta Turismorako Zuzendaritzak, BEAZ enpresaren bitartez, ikuskapen teknikoa egin ahal izango du ikusten badu balitekeela inskribatutako enpresa batek artisautzako enpresaren izaera galdu izana.

11. artikulua.- *Bigarren atala: artisautzako elkarteak.*

Erregistroan inskribatu ahal izateko, artisautzako elkarteek baldintza hauek bete behar dituzte, inskribatzeko eskabidea egiten dutenean zein inskribatuta dauden bitartean:

- Sozietatearen helbidea eta helbide fiskala Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea.
- Elkartearen sozietate-helburuan sartuta egotea artisautza bultzatu eta sustatzea Bizkaiko kultura-ondasun gisa.
- Jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta emanda egotea.
- Sexu-diskriminazioa dela eta inoiz zehapena jaso gabeak izatea.
- Bizkaian helbide duten gutxienez ere hiru kidek osatuta egotea.

IV. KAPITULUA

ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO PROZEDURA

12. artikulua.- *Erregistroan inskribatzeko eskabidea.*

1.- Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren bulego birtualaren bidez egingo da inskribatzeko eskabidea.

2.- Eskabidea egiteko ereduak Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren webean lortu eta bete daitezke. Foru-sailean bertan ere egongo dira interesdunen eskura.

3.- Inskribatzeko eskabidean bertan, eskatzaileek beren-beregiko baimena eman diezaiokete Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saileko organo kudeatzaileari, organo horrek eska ditzan tributu-administrazioak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak eman beharreko ziurtagiriak. Espresuki jasota geratu ez bada baimena eman dela, interesdunak berak aurkeztu beharko ditu dokumentu-ziurtagiriak.

13. artikulua.- *Nahitaezko dokumentazioa*

- Para el caso de empresas dedicadas a la fabricación de productos cosméticos, haber obtenido la autorización de la Agencia Española de Medicamentos y Productos Sanitarios, regulada en el Real Decreto 1597/1997, de 17 de octubre, que recoge la regulación de los productos cosméticos, modificado por el Real Decreto 209/2005, de 25 de febrero.

2.- La Dirección de Promoción Exterior y Turismo podrá realizar, de oficio, una inspección técnica, a través de la empresa BEAZ, S.A.U., en el caso de que se detectase la posible pérdida del carácter artesanal de la empresa inscrita.

Artículo 11.- *Sección segunda: asociaciones artesanas.*

Las asociaciones artesanas para poder inscribirse en el Registro, deberán cumplir los siguientes requisitos tanto en el momento de la solicitud de inscripción como durante la permanencia en el mismo:

- Tener el domicilio social y fiscal en el Territorio Histórico de Bizkaia.
- Haber incluido como objeto social de la asociación la promoción e impulso de la artesanía, como bien cultural de Bizkaia.
- Encontrarse en situación de alta en el Impuesto de Actividades Económicas.
- No haber sido sancionadas por incurrir en discriminación por razón de sexo.
- Estar constituida por, al menos, tres miembros domiciliados en Bizkaia.

CAPÍTULO IV

PROCEDIMIENTO DE INSCRIPCIÓN EN EL REGISTRO

Artículo 12.- *Solicitud de inscripción en el registro.*

1.- La solicitud de inscripción se efectuará a través de la Oficina Virtual del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial.

2.- Los modelos de solicitud se podrán obtener y cumplimentar en la página web del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia. Igualmente estarán a disposición de las personas físicas interesadas en el propio departamento foral.

3.- Las personas solicitantes podrán otorgar en la solicitud de inscripción, autorización expresa al órgano gestor del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial para recabar los certificados a emitir por la Administración Tributaria y por la Tesorería General de la Seguridad Social. De no quedar constancia expresa de dicha autorización, deberán aportarse directamente por la persona interesada.

Artículo 13.- *Documentación preceptiva*



Erregistroan inskribatzeko eta artisautzako erakundetzat jotzeko eskabideak betetzean, dokumentazio hau erantsi beharko da:

A) Artisautzako enpresak:

- 1.- Eskabide-orria, behar bezala beteta; bulego birtualaren bidez lor daiteke.
- 2.- Bizkaiko udalerriren bateko egoiliar direla egiaztatzen duen erroldatze-ziurtagiria.
- 3.- Jarduera ekonomikoen gaineko zergan artisauro-lanbideen bildumako epigrafe batean alta emanda daudela egiaztatzen duen agiria (bilduma 2014ko apirilaren 10eko 3564/2014 Foru Aginduan dago jasota), aurreko artikuluan ezarritako baimena ematen ez bada.
- 4.- Gizarte Segurantzaren dagokion araubidean alta emanda daudela egiaztatzen duen agiria, aurreko artikuluan ezarritako baimena ematen ez bada.
- 5.- Eginiko lana erakusten duten lau argazki.
- 6.- Ekoizpen-prozesua eta lantegia erakusten dituzten lau argazki.
- 7.- Produktu kosmetikoak fabrikatzu gero, foru-dekretu honen 10. artikuluan adierazitako baimena.
- 8.- Erantzukizunpeko adierazpena egingo dute ziurtatzeko jarduerak egitean emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatuko dutela jarduera guztietan zeharkako helburu gisa eta berdintasuna bera helburu dela. Hori gauzatzeko aukera hauek daude: partaidetza paritaria sustatzea, beste ekintza batzuk egitea, hizkuntza eta irudiak modu ez-sexista batean erabiltzea, eta abar.

B) Elkarrekin:

1. Eskabide-orria, behar bezala beteta; bulego birtualaren bidez lor daiteke.
2. Jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta emanda daudela egiaztatzeko agiria, aurreko artikuluan ezarritako baimena ematen ez bada.
- 3.- Elkarteko pertsona eskudunak emandako ziurtagiria, non egiaztatzen den elkarteko kide diren artisautzako enpresetatik zenbat diren Bizkaiko Lurralde Historikokoak.
- 4.- Erantzukizunpeko adierazpena egingo dute ziurtatzeko jarduerak egitean emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatuko dutela jarduera guztietan zeharkako helburu gisa eta berdintasuna bera helburu dela. Hori gauzatzeko aukera hauek daude: partaidetza paritaria sustatzea, azoketan eta beste ekintza batzuetan genero-ikuspegia ezartzea, hizkuntza eta irudiak modu ez-sexista batean erabiltzea, eta abar.

14. artikulua.- Eskabideak aurkeztea

1.- Eskabidea Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren bulego birtualaren bidez egingo da; Bizkaiko Foru Aldundiaren webaren bitartez (<http://web.bizkaia.eus>) sar daiteke bulego birtual horretara. Eskabideen aurkezpen telematikoa egiteko, aurretik pertsona interesdunek sinadura elektronikoa izan behar dute, edo alta eman behar dute

Las solicitudes de inscripción en el registro y obtención del reconocimiento de entidad artesana se cumplimentarán, acompañando la siguiente documentación:

A) Empresas artesanas:

- 1.- Formulario de la solicitud, habilitado al efecto en la Oficina Virtual, debidamente cumplimentado.
- 2.- Certificado de empadronamiento como residente de algún municipio de Bizkaia.
- 3.- Acreditación de la situación de alta en el Impuesto de Actividades Económicas en un epígrafe correspondiente a un oficio artesano recogido en el repertorio de oficios artesanos (Orden Foral 3564/2014, de 10 abril), en caso de no otorgarse la autorización establecida en el artículo anterior.
- 4.- Acreditación de la situación de alta en el régimen correspondiente de la Seguridad Social, en caso de no otorgarse la autorización establecida en el artículo anterior.
- 5.- Cuatro fotografías que muestren los trabajos realizados.
- 6.- Cuatro fotografías donde se muestre el proceso de producción y del taller donde se desarrolla el oficio.
- 7.- En el caso de fabricación de productos cosméticos, la autorización del artículo 10 del presente Decreto.
- 8.- Declaración responsable de que en el desarrollo de sus actividades, se incluirá, de forma transversal y como un objetivo en sí mismo, la promoción de la igualdad entre mujeres y hombres. Esto se podrá realizar mediante el fomento de la participación paritaria, y otras actuaciones, el uso no sexista de lenguaje e imágenes...etc.

B) Asociaciones:

- 1, Formulario de la solicitud, habilitado en la Oficina Virtual, debidamente cumplimentado.
2. Acreditación de la situación de alta en el Impuesto de Actividades Económicas, en caso de no otorgarse la autorización establecida en el artículo anterior.
- 3.- Declaración responsable de la persona competente de la asociación que acredite el número de empresas artesanas asociadas, pertenecientes al Territorio Histórico de Bizkaia.
- 4.- Declaración responsable de que en el desarrollo de sus actividades, se incluirá, de forma transversal y como un objetivo en sí mismo, la promoción de la igualdad entre mujeres y hombres. Esto se podrá realizar mediante el fomento de la participación paritaria, la inclusión de la perspectiva de género en las ferias y otras actuaciones, el uso no sexista de lenguaje e imágenes...etc.

Artículo 14.- Presentación de solicitudes

1.- La solicitud se realizará a través de la Oficina Virtual del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial, accesible a través de la web de la Diputación Foral de Bizkaia (<http://web.bizkaia.eus>). Esta presentación telemática de las solicitudes exigirá que, con carácter previo, las personas interesadas dispongan de firma electrónica, o se den de alta en



BizkaiBai zerbitzuan (goiko web-orrian agertzen da nola eman behar den alta prozedura horretan).

2.- Eskabide-orria aurkeztearekin batera erakunde eskatzaileari alta emango zaio Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren Erakundearen Erregistroan (2010eko apirilaren 27ko 61/2010 Foru Dekretuaren eta 2011ko maiatzaren 3ko 85/2011 Foru Dekretuaren bidez arautu da erregistro hori).

3.- Eskabideekin batera, artisautzako erakunde bakoitzarentzat zehazten diren dokumentuak aurkeztu behar dira; horretarako, gorago aipatu den bulego birtualean agiriak eransteke dagoen sistema erabili behar da. Eskabideari erantsi nahi zaizkion dokumentuen formatua dela-eta ezin bada erabili goian adierazitako sistema hori, dokumentazio hori guztia Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren erregistroan aurkeztu beharko da (Orueta Apezpikua kalea, 6, Bilbo), 08:30etik 13:30era bitartean. Horretarako, 5 egun balioduneko epea egongo da gehienez, eskabidea bidali eta biharamunetik zenbatzen hasita. Bide horrez gainera, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan xedatutako beste edozein bide erabil daiteke. Edozelan ere, eskabideari erantsitako dokumentuei gehitu egin behar zaie erregistroaren sarrera-zenbakia.

15. artikulua.- Eskabidea zuzentzea eta hobetzea

Eskabidea jasotakoan, ez badator oso-osorik beteta edo harekin batera ez bada aurkezten artisautzako erakunde bakoitzerako ezarritako dokumentazioa, orduan organo instrukzio-egileak eskatuko dio erakunde eskatzaileari akatsa hamar (10) eguneko epean (jakinarazpena egin eta biharamunetik zenbatzen hasita) konpon dezala; eta ohartaraziko dio hala egiten ez badu bere eskaeran atzera egindakotzat joko dela eta prozedura amaitutzat joko dela, 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 94. artikuluekin bat.

16. artikulua.- Instrukzioa.

1.- Organo instrukzio-egileak egiaztatuko du ea betetzen diren artisautzako erakunde izaera lortzeko behar diren baldintza guztiak.

2.- Nolanahi ere, organo instrukzio-egileak eskabideak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko behar duen dokumentazio eta/edo informazio osagarri guztia eska diezaieke erakunde eskatzaileei.

3.- Artisautzako enpresen kasuan, ebazpena eman aurretik, artisautzako erakunde eskatzailearen lantegia ikusteko bisita egingo dute BEAZ SAU foru-sozietate publikoko langileak (sozietate hori Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailari atxikita dago), egiaztatzeko ea egokiak diren erakundeak erabilitako prozesuak eta ekoiztako artisautza-produktuak. Ikuskapen horren bidez egiaztatuko da lantegia edo ekoizpen-zentroa egokituta dagoen lanak eskatzen dituen

el servicio BizkaiBai, cuya información sobre el procedimiento de alta está disponible en la citada página web.

2.- La presentación de la solicitud implicará la solicitud, a su vez, de alta de la entidad solicitante en el Registro de Entidades del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial, regulado por los Decretos Forales 61/2010, de 27 de abril y 85/2011, de 3 de mayo.

3.- Las solicitudes deberán ir acompañadas de la documentación que se establece para cada una de las entidades artesanas, utilizándose el sistema de anexo de documentación existente en la Oficina Virtual anteriormente citada. Si ello no fuera posible por razón del formato de la documentación a anexar, ésta se entregará en el Registro del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial (calle Obispo Orueta nº 6 de Bilbao, dentro del horario de funcionamiento del mismo (de 8,30h. a 13,30h.), en un plazo máximo de 5 días hábiles, contados a partir del día siguiente del envío de la solicitud, sin perjuicio de la presentación mediante cualquier otro de los medios previstos en el artículo 16 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. En todos los casos, a la documentación anexa se le deberá incorporar el número de registro de entrada de la solicitud.

Artículo 15.- Subsanación y mejora de la solicitud

Recibida la solicitud, si ésta no estuviera cumplimentada en todos sus términos, o no fuera acompañadas de la documentación que se establece para cada una de las entidades artesanas, el órgano instructor, requerirá a la persona solicitante para que, en el plazo de diez (10) días hábiles, contados a partir del día siguiente en que tenga lugar la notificación, subsane el defecto, con la indicación de que, si no lo hiciera, se la tendrá por desistida de su petición, por lo que se declarará concluso el procedimiento, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 94 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre.

Artículo 16.- Instrucción.

1.- El órgano instructor comprobará el cumplimiento de los requisitos establecidos para adquirir la condición de entidad artesana.

2.- En todo caso, el órgano instructor podrá requerir a la entidades solicitantes, cuanta documentación y/o información complementaria considere necesaria para la adecuada comprensión y evaluación de la solicitud presentada.

3.- En el caso de las empresas artesanas, con carácter previo a la propuesta de resolución, el personal de la sociedad pública foral BEAZ S.A.U, adscrita al Departamento de Desarrollo Económico y Territorial, realizará una inspección técnica del taller de la entidad artesana solicitante con el fin de comprobar la adecuación de los procesos utilizados y de los productos artesanos realizados por la entidad correspondiente. Esta inspección está dirigida a verificar la adecuación del taller o



higiene eta babeseko neurrietara; horrez gainera, artisauek jarduerarako beharrezkoak diren baimen guztiak izan beharko dituzte, egiten duten jardueran aplikatzeko den araudi espezifikoaren arabera.

17. artikulua.- Ebazpena

1.- Organo instrukzio-egileak ebazpen-proposamena igorriko dio Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saileko foru diputatuari, dagokion foru-aginduren bidez ebazpena eman dezan.

2. Erakunde interesdunari jakinaraziko zaio ebazpena, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan ezarritako eran.

3.- Ebazpenak amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta haren aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioko Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saileko foru- diputatuari, hilabeteko epean, ebazpenaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan ezarritakoaren arabera; bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke, bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen 1998ko uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritakoaren arabera. Ezingo dira errekurtso biak aldi berean jarri.

4.- Inskribatzeko espedienteak ebatzi eta jakinarazteko epea hiru hilabetekoa izango da eskabidea Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren bulego birtualean edo, eskabidea zuzenean ematen bada, erregistroan sartzen denetik. Eskumena duen organoak ebazpen espresua eman behar badu ere epea igaro eta interesdunari ebazpena jakinarazi ez bazaio, eskabidea baietsizat joko da administrazio-isiltasunez, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 24. artikuluan ezarritakoarekin bat.

18. artikulua.- Ezerezteak

1.- Inskribatutako enpresa edo elkarteek edozein unetan eska dezakete inskripzioa ezerezteko.

2.- Jarduera ekonomikoen gaineko zergan edo Gizarte Segurantzaren araubidean baja emateak berez ekarriko du Bizkaiko Artisautzako Erakundearen Erregistroan inskripzioa ezerezte, ofizioz.

3.- Era berean, inskripzioa ezerezteko arrazoi izango dira artisautza-jarduerari behin betiko uztea, enpresaren nortasun juridikoa azkentzea edo artisauen elkarte desegitea.

4.- Interesdunari jakinaraziko zaio inskripzioaren ezerezte, eta haren kontra jar ditzakeen errekurtso motak jakinaraziko

centro de producción a las medidas de higiene y protección que exige esta labor, sin perjuicio de que es obligación de las personas artesanas contar con los permisos preceptivos, conforme a la normativa específica que les sea de aplicación en relación con la actividad ejercida.

Artículo 17.- Resolución

1.- El órgano instructor elevará la propuesta de resolución al Diputado del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial, quien resolverá mediante Orden Foral.

2. La resolución será notificada a la entidad interesada, con los requisitos establecidos en el artículo 40 de la Ley de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

3.- La resolución agota la vía administrativa y contra la misma se podrá interponer recurso potestativo de reposición ante el Diputado Foral del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente de reciba la notificación, según lo preceptuado en los artículos 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, o directamente un recurso contencioso administrativo en el plazo de dos meses, según la Ley 29/1998 de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa. No será posible simultanear ambos recursos.

4.- El plazo de resolución y notificación del expediente de inscripción será de tres meses, desde la fecha de entrada de la solicitud en la Oficina Virtual del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial o en el Registro del mismo, si la solicitud se ha realizado de forma presencial. Si vencido este plazo la resolución no se hubiese notificado a la persona interesada, sin perjuicio de la obligatoriedad del órgano competente de dictar resolución expresa, se entenderá estimada la solicitud por silencio administrativo conforme a lo previsto en los artículos 24 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas

Artículo 18.- Cancelaciones

1.- Las empresas o asociaciones inscritas podrán solicitar la cancelación de su inscripción en cualquier momento.

2.- La baja en el censo del Impuesto de Actividades Económicas o en el régimen de la Seguridad Social implica la cancelación automática, de oficio, en el Registro de Entidades Artesanas de Bizkaia.

3.- Del mismo modo serán causa de cancelación el cese definitivo de la actividad artesana, la extinción de la personalidad jurídica de la empresa o la disolución de la asociación de personas artesanas.

4.- La cancelación de la inscripción será notificada a la persona



zaizkio, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan ezarritakoarekin bat.

interesada, con ofrecimiento de los recursos pertinentes, de conformidad con el artículos 40 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas

V. KAPITULUA

CAPÍTULO V

INSKRIPZIOAREN ONDORIOZKO ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

DERECHOS Y OBLIGACIONES DERIVADAS DE LA INSCRIPCIÓN

19. artikulua.- *Izen-emateak dakartzan eskubideak*

Artículo 19.- *Derechos derivados de la inscripción*

1. Artisauek nahitaez inskribatu behar dute erregistro honetan eskubide hauek erabili nahi badituzte:

1. La inscripción en este registro será requisito necesario para que los sujetos artesanos puedan ostentar los siguientes derechos:

- Bizkaian artisautzako erakunde edo enpresaren aitortpena lortzea, horretarako beharrezkoa den ziurtagiriaren bidez.

- Obtener el reconocimiento de entidad o empresa artesana de Bizkaia mediante la emisión del correspondiente certificado.

- Artisautzaren arloko eskumena duen foru-sailak artisautzajarduera dela-eta ematen dituen diru-laguntza nahiz laguntzen deialdietan parte hartzea.

- Participar en las convocatorias de subvenciones y concesión de ayudas relacionadas con el ejercicio de la actividad artesanal, que se concedan por el Departamento Foral competente en materia de artesanía.

- Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzaren bat izanda Bizkaian egiten diren azoketan parte hartzea, ezartzen den eran.

- Participar en las ferias que se organicen en Bizkaia, que obtengan algún tipo de ayuda por parte de la Diputación Foral de Bizkaia, en los términos que se establezcan.

- Artisautzaren arloko eskumena duen sailak antolatu edo diruz laguntzen dituen ikastaro, hitzaldi eta antzeko ekitaldietan parte hartzea.

- Participación en cursos, conferencias y demás actividades de esta índole que organice o subvencione el Departamento Foral competente en materia de artesanía.

20. artikulua.- *Inskripzioaren ondoriozko betebeharrak*

Artículo 20.- *Obligaciones derivadas de la inscripción*

- Erregistroko inskripzioak dakar inskribatutako erakundeak Erregistroaren organo arduradunari jakinaraztea erregistratutako datuetan gertatzen den edozein aldaketa, aldaketa gertatu eta hilabeteko epean; edonola ere, administrazioak ahalmena du erregistroan dauden datuak ofizioz aldatzeko, aurretik 10 eguneko epean interesdunari entzunaldia emanda.

- La inscripción en el Registro conlleva el compromiso de la entidad inscrita de poner en conocimiento del órgano encargado del Registro de cualquier alteración de los datos registrados en el plazo de un mes desde que el hecho tuviera lugar, sin perjuicio de las facultades que tiene la administración para modificar, de oficio, los datos obrantes en el registro, previa audiencia al interesado por un período de 10 días.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legean xedatutakoaren arabera, inskribatutako enpresa, erakunde edo elkarteek lege horretan ezarritako printzipio orokorrak errespetatu beharko dituzte, beren lanaren barruko estatistikak genero-ikuspegiaren arabera egokitu beharko dituzte, ez dute hizkera sexistarik erabiliko, eta emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua bermatu beharko dute eratzten diren batzordeetan eta lantaldeetan.

- Las empresas, entidades o asociaciones inscritas, de conformidad con lo previsto en la Ley 4/2005, del 18 de febrero de 2005 Igualdad de Mujeres y Hombres, deberán respetar los principios generales previstos en la misma, deberán adecuar las estadísticas que formen parte de su trabajo a una perspectiva de género, deberán realizar un uso no sexista del lenguaje y deberán garantizar una representación equilibrada entre mujeres y hombres en la comisión y equipos de trabajo que se constituyan.

VI. KAPITULUA

CAPÍTULO VI



ARTISAUTZAKO ERAKUNDEAREN ZIURTAGIRIA

21. artikulua.- *Artisautzako erakundearen ziurtagiria ematea*

1. Artisautzako erakundearen ziurtagiria Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak artisautzaren arloan emandako dokumentu bat da, publikoki identifikatzen duena ziurtagiriaren titularra artisautzako erakundea dela.
- 2.- Lehenengo inskripzioa egitean, inskripzioari buruzko ebazpen bat emango da, non erregistroko datu guztiak jasoko diren.
- 3.- Ondoren, inskribatutako erakundeek ziurtagiri horiek eskatu ahal izango dituzte behar dituztenean, bulego birtualaren bidez.
- 5.- Inskripzioari buruzko ziurtagiriek hiru hilabeteko indarraldia izango dute ematen diren egunetik.

XEDAPEN IRAGANKORRA

1. 2014ko otsailaren 8ko 46/2014 Foru Dekretuan araututako Bizkaiko Lurralde Historikoko Artisautzako Erakundeen Erregistroan inskribatutako artisauen inskripzioek indarrean jarraituko dute foru-dekretu honen bidez araututako erregistroan.
2. 2014ko otsailaren 8ko 46/2014 Foru Dekretuaren babesean Bizkaiko Lurralde Historikoko Artisautzako Erakundeen Erregistroan inskribatzeko aurkeztu diren eskabideak ebatzi barik badaude dekretu hau indarrean jartzen denean, eskabideok dekretu honetan ezarritakoaren arabera ebatziko dira.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Foru dekretu honetan jasota ez dagoenerako eta prozedurari dagokionez, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoa aplikatuko da.

XEDAPEN INDARGABETZAILEAK

Indargabetuta geratzen dira foru dekretu honetan eta, bereziki, 2014ko otsailaren 8ko 46/2014 Foru Dekretuan ezarritakoarekin bat ez datozen edo aurkakoak diren maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENA

1. Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren titularraren foru-agindu bidez onartu ahal izango dira apirilaren 10eko 3564/2014 Foru Aginduaren aldaketak (foru-

DEL CERTIFICADO DE ENTIDAD ARTESANA

Artículo 21.- *Emisión de certificado de entidad artesana*

1. El certificado de entidad artesana es el documento emitido por el Departamento de Desarrollo Económico y Territorial en materia de artesanía, con el objeto de identificar públicamente la condición de entidad artesana de Bizkaia.
- 2.- Con la primera inscripción se emitirá una resolución de inscripción en la que consten todos los datos registrales.
- 3.- Posteriormente, las entidades inscritas podrán solicitar dichos certificados, cuando lo estimen necesario, a través de la Oficina Virtual.
- 5.- Estos certificados de inscripción tendrán una vigencia de tres meses desde su fecha de emisión.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

1. Las personas artesanas inscritas en el Registro de Entidades Artesanas del Territorio Histórico de Bizkaia regulado por el Decreto Foral 46/2014, de 8 de abril, mantendrán su inscripción en el Registro regulado por el presente Decreto Foral.
2. Las solicitudes de inscripción en el Registro de Entidades Artesanas del Territorio Histórico de Bizkaia presentadas al amparo del Decreto Foral 46/2014, de 8 de abril, y no resueltas a la entrada en vigor del presente Decreto, serán resueltas de acuerdo con lo establecido en el presente Decreto.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

En todo lo no previsto en el presente Decreto Foral y en relación al procedimiento, resultará de aplicación lo previsto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogada toda la normativa de igual o inferior rango en lo que contradiga o se oponga a lo dispuesto en este Decreto Foral y expresamente el Decreto Foral 46/2014, de 8 abril.

DISPOSICIÓN FINAL

1. Las modificaciones de la Orden Foral 3564/2014, de 10 de abril, de desarrollo del Decreto Foral 46/2014, de 8 de abril, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueba el



agindu horren bidez, Bizkaiko artisau-lanbideen bilduma onartzen duen apirilaren 8ko 46/2014 Foru Dekretua garatzen da).

repertorio de oficios artesanos de Bizkaia, se podrán aprobar mediante Orden Foral de la persona titular del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial.

2. Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saileko titularrari baimena ematen zaio foru-dekretu hau garatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan.

2. Se autoriza a la persona titular del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial a dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo del presente Decreto Foral.

3. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean foru dekretu hau.

3. El presente Decreto Foral entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

Bilbon, 2018....(e)ko(a)ren(e)(a)n.

Bilbao, a de de 2018.

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko foru diputatua
El Diputado Foral de Desarrollo Económico y Territorial

Imanol Pradales Gil

Ahaldun Nagusia
Diputado General

Unai Rementeria Maiz